

Hernanirako bidea egingo du gaur 'Aldaiatik askatasunera' martxak

BAKen ibilaldiak Alditransko langileekin bat egingo du bihar

Beasainera iritsi zen atzo BAKek Jose Maria Aldaiaren askatasuna eskatzeko antolatu duen martxa, eta manifestaldi isila egin zuten Goierriko herrian. Bihar amaituko da ibilaldia Oiartzunen, Alditrans enpresako langileen asteheneroko kontzentrazioarekin bat eginez.

DONOSTIA

Goierriko udaletako talde politiko gehienek martxari euren atxikimendua adierazi zioten, herritarrak bertan parte hartzera deituz. Bahiketa gaitzetsi zuten ohar batean, euren ustez, «edozein gizakiren askatasuna eta duintasuna ezin direlako erabili inolako helburu politikorik lortzeko». Gainera «denok elkarrekin bakean bizitzeko helburua» aldarrikatu zuten oharrean, «edozein iritzi giza eskubideen errespetutik abiatuta eta bitarteko demokratikoak erabiliz defenditzeko gai den gizarte bat eraikiz».

Ostiralean abiatu ziren BAKek 'Aldaiatik askatasunera' izeneko martxaren partaideak Arabako Aldaia menditik ETAK bahituta daukan Jose Maria Aldaia enpresariaren askatasuna galdatzeko. Gaur Beasaindik Hernanira abiatuko dira, eta gaua bertan egin ondoren, Oiartzunera helduko dira bihar ibiltariak. Han Alditrans-eko langileek astehenero egiten duten kontzentrazioarekin bat egingo dute.

Aldaia mendian ere, HBren deiari jarraituz 'Euskal Herria askatu' lemapean bildu zirenak izan zituzten aurrez aurre BA-



Aldaia mendian hasi zuen ibilaldia BAKek.

Keko kideek. Mendiaren mutur ezberdinetatik abiatu eta gailurrean egin zuten topo talde biak. Bost minutuz isilik egon ondoren mendian behera joan zen HBk deitutako taldea. Poliziarik izan ez arren ez zen istilurik izan bi taldeetako kideen artean.

Txema Urkijo BAKeko bozeramaileak «gizabanakoaren eskubideak beste inolako erreibindikazioen gainetik duen lehentasuna» azpimarratu zuen. HBk antolatutako kontzentrazioari buruz, «garrantzirik ez» duela esan zuen. «Espero genuen hori. Azken bi urteetan bakezaleok antolatu dugun edozein ekintzak beti izan du HBren ingurune horretatik erantzun bat», gaineratu zuen Urkijok.

Bestalde, Iñaki Olalde HBko kideak adierazi zuenez, «lazo urdinarekin errealtate faltsu bat eraiki nahi dute, dauden beste errealtateak estaliz».

Alditranskoak gustora instituzioekin

DONOSTIA

Enrique Cercadillok, Alditrans enpresako langileen bozeramaileak, «oso positibotzat» jo zuen BAKek Aldaiaren askatasuna eskatzeko antolatu duen ibilaldia. «Erakunde hori beti gurekin izan da, ekimen gogorrei ekiteko gai dela erakutsi digu eta oso lagungarria da guretzat», dio Cercadillok. Bestalde, Gipuzkoako Diputazioak Aldaiaren alde bultzatu duen ekimenari buruz, Cercadillok «gizarteak instituzioen aldetik espero zuena» dela uste du. «Euskal herritarrak horren zain zeuden, gizarteaz-

karra delako eta badakielako bere ordezkariak ere zerbait esan behar dutela», gaineratu du.

Iragan ekainaren 22tik hona Alditrans kontzentrazioetan istilurik gertatu ez izana «manifestazio paraleloetako jendearen jarrera aldaketak eragin» duela uste du Cercadillok. «Egoerari buruz apur bat mamurtu ondoren konturatu dira hori ez dela bide egokia», argitu du.

'Egin-en' agertu ziren Aldaiaren argazkiak «famiak eskatzen zuen gauza baten erantzuna» izan direla dio Cercadillok. «Hala ere, horrekin Jose Mariren egoera ez da aldatu», zehatu du.

PP: «EAJri txantajea egin nahi izan diote sozialistek Bilbon»

BILBO

Carlos Iturgaitzek, Alderdi Popularreko Bizkaiko idazkari nagusiak, PSE-EEK Eusko Alderdi Jeltzaleari «txantajea egin» nahi izan diola adierazi zuen. Txantaje honen bidez EAJk Bilboko udal txean PPrekin akordioak ez lortu nahi omen zuen. Carlos Iturgaitzek, Alderdi Popularreko zinegotzia eta alkateorde berria den Asension Pastorrekin eman duen prentsaurrekoan egin ditu adierazpenok.

Prentsaurreko honetan, EAJrekin lortu duten adostasunaz balorazioa egin nahi iozan du Iturgaitzek. Bi alderdi hauen arteko akordioak gehiengo ematen die Bilboko Udalean. Carlos Iturgaitzen iritziz, sozialistak akordiotik kanpo geratu badira,

«nahi izan dutelako izan da». Alderdi Popularrekoak beraien aldetik sekula ez direla PSOE alderdiarekin batera gobernatzearen aurka agertu azaldu zuen Iturgaitzek, PPren ustez udalak herritar guztion lanarekin aurrera egin behar duten erakundeak direlako.

PROPOSAMEN EGOKI BATI ERE UKO

Era berean, sozialistek popularrek egindako proposamen egoki bati ere uko egin ziotela azpimarratu zuen PPko Bizkaiko idazkari nagusiak, udal boterea lortutako zinegotzietan oinarrituta banatzea eskatzen zuten Alderdi Popularretik eta horrek PSE-EEKoak toki txarragoan uzten zituen. Carlos Iturgaitzek sozialisten jarrera «negargarritzat» jo zuen.

FFF

VITORIA-GASTEIZKO

UDALA



AYUNTAMIENTO

DE VITORIA-GASTEIZ

BANDOA

1995eko UZTAILAREN 25erako ZIRKULAZIO ARAUAK (BLUSAREN EGUNA)

Uztailaren 25ean, Santiago egunez, nabarmenki aldatu ohi da gure hiriko bizimodua, eta zenbait kaleren erabilpena aldatu beharra dakarkigu horrek, egun horretako jai giroa egokitzeko, elkarbizitza hobetu eta segurtasuna handitzeko ahaleginean. Guzti hori dela eta, honako hau JAKINARAZTEN DUT:

- Hiriaren erdialdean eta Erdi Aroko hirigunean, oinez bakarrik ibiltzeko kaleak izango dira ondoren adierazten direnak:
 - Uztailaren 24eko arratsaldeko 8etatik uztailaren 25eko gaueko 12ak arte, Erregearen Atea, San Frantzisko, San Frantzisko Aldapa, San Bizente Aldapa, Foruak (Olagibel eta Erregearen Atea bitartean), Pintorería eta Prado.
 - Uztailaren 25eko goizeko 8etatik gaueko 10ak arte, lehen aipatutako gain, ondokoak ere izango dira oinez ibiltzekoak: Herrería, Zapatería, Correría, Cuchillería, Andra Mari Zuria, Mateo Moraza, Olagibel (Agirre Lehendakaria eta Bakea kalea bitartean), Alava Jenerala, Becerro de Bengoa, San Antonio (Florida eta Alava Jenerala kalea bitartean), Foruak (hasieratik Ortiz de Zarate kalera bitartean), Vicente Goikoetxea eta Independentzia.
- Aurreko puntuetan adierazitako kale guztietan debekatuta egongo da aparkatzea zein ibilgailuz zirkulazioa; xedapen hori betetzen ez duten ibilgailuak garabiz erretiratu dira eta horretarako dauden udal auto-biltokietara eramango.
- Zezenketarako ohizko joan-etorriei dogozkien orduetan zirkulazioa galerazita egongo da Florida kalean (Pío XII. eta Dato kalea bitartean) eta Angulema kale osoan; Florida kalean, berriz, norabidea aldatuko da Pío XII. eta Herrandarren kalearen arteko zatian.
- Aurreko atalean adierazitako ordu beroietan debekatuta egongo da zezen-plazako aparkalekuan autorik uztea edo bertan barrena zirkulazioa, zezenketarekin zerikusi zuzena duten zerbitzu, laguntza-emaile eta profesionarientzat erreserbatuta egongo baitira leku horiek.
- Era honetan burutuko da bidaiarientzako hiri barruko garraio-zerbitzua:
 - Gamarra, Eskalmendi, Zaramaga, Aranbizkarra, eta Aranako lineetako autobusek Bakea kalean izango dute geltokia, Galerías Preciados aurrean.
 - Errekalehor eta Jauregilandako lineen azken geltokia Jesús Guridi kalean izango da, azokaren aurrez aurre. Zezenketa-ikuskitzunez dirauten bitartean eta horietara sartu eta ateratzeko orduetan aldatu egingo dira linea horien ibilbidea. Honako hau izango da: Jesús Guridi, Bakea, ayala Kantzilería, Eduardo Velasco, José Lejarreta, Florida, Jacinto Benavente zubia, Jacinto Benaventeren luzapena: Venta de la Estrella kaletik aurrera ohizkoa izango da ibilbidea, eta tarteko geltokiak kendu egingo dira. Itzulerako ibilbidea ohizkoa izango da.
 - Abetxuko, Astegieta, Sansomendi, Txagorritxu, El Pilar-Lakua eta Armentia lineetako autobusen azken geltokia Cadena y Eleta kalean egongo da.
 - Feria-lekurako aparteko autobus-linearen azken geltokia Cadena y Eleta kalean egongo da; Gamarrako igerilekuetarako linearena, berriz, Bakea kalean.
 - Itzulinguruko 1. linean ez da inolako aldaketarik izango. Itzulinguruko 2. linearen ibilbidea, aldi, aldatu egingo da zezenketa-ikuskitzunez dirauten bitartean eta horietara sartu eta ateratzeko orduetan. Honako hau izango da: José Lejarreta, Florida, Jacinto Benavente zubia, Zumaquera; hortik aurrera ohizkoa izango da ibilbidea, eta tarteko geltokiak kendu egingo dira.
 - Kamioiak aparkatzeari dagokionez 1994ko martxoaren 21eko Alkategoaren Bandoa gogorarazten zaie kamioi gidariei; horren arabera, kamioiak industrialdeetan edo Salburuako kamioientzako aparkalekuan aparkatu beharko dira.
 - Ibilgailuen gidariak, zirkulazio arauak eta trafikoa arautzenden udal ordenantza betetzeaz gain, arretaz gidatu beharko dute, abiada motelarekin eta jai egunetan oinez ibiltzeko izango diren kaleetan oinezkoen lehentasuna errespetatuz. Orobat, udaltzainen aginduak bete beharko dituzte, beti ere.
 - Hiriko osasun zentruak lanez gainezka gerta ez daitezten eta hiritarrei hurbilago osasun-zerbitzua eskaintzearen, sendaketa-tokiak jarriko dira, jaiak dirauten bitartean, honako leku-hauekin: San Frantzisko kalean, Postetxearen ondoan, Loma Jeneralaren plazan eta feria-lekuan; hilaren 25eko goizeko 10etatik arratsaldeko 3etara eta arratsaldeko 6etatik hurrengo eguneko goizeko 3ak arte egongo dira zabalik. Horietaz gain, zabalik egongo dira, gau eta egun, Gurutze Gorria, Gastela kaleko 13.ean, eta DYA, Manuel Iradier kalean (zezen-plazaren ondoan). San Frantzisko kalean eta Postetxearen ondoan jarritako larrialdierako postuak zabalik egongo dira hilaren 24an ere, gaueko 10etatik aurrera, beharrezkotzat jotzen den arte. Zerbitzu horiei laguntza eskaintzeko, 6 ambulanzia kokatu dira, modu estrategikoan, hiriko beste hainbat lekutan.

Guztiok jakin eta bete dezaten ematen dut argitaratzen.



Vitoria/Gasteiz, 1995eko uztailak 17.
ALKATE-UDALBATZARBURUA